

25 GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2022ko martxoaren 10ean aurkeztuko du

Monira Al Qadiri: *Laurden sakratua*

Monira Al Qadiri. Laurden sakratua

- Datak: 2022ko martxoaren 10etik ekainaren 12ra
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2022ko martxoaren 10tik ekainaren 12ra, Guggenheim Bilbao Museoak *Monira Al Qadiri. Laurden sakratua* izango du ikusgai, 2022ean Film & Video aretoan egingo den lehenengo erakusketa. Areto horretan, hainbat diziplinatako funtsezko piezak jartzen ditu erakusgai Museoak: bideo-arte, ikus-entzunezko instalazioak zein mugimendudun irudia arte-hizkuntza gisa darabilten lanak.

Oraingo honetan Monira Al Qadiri (1983) artistaren bideo- eta eskultura-instalazio bat izango da ikusgai. Al Qadiri kuwaitarra da, Senegalen jaioa eta gaur egun Berlinen bizi dena, eta haren lanak, era askotako euskarrien bidez, historia kolonialaren alderdi ezezagunak, petrolioaren kultura eta identitateen eraikuntza ikertzen ditu Ekialde Ertaineko testuinguruan. Ikerketa hori interes geoestrategikoak bertako energia-baliabideekin estu lotuta dauden eskualde batean kokatzen du, non batera gertatu diren tokiko bizimoduaren eraldaketa erradikala eta planetako ekosistemen gainean industria izaten ari den eragin gero eta bizkorragoa. Lurreko tenperaturarik altuenak izan ohi dituzten paisaia hareatsu haietan potentzial narratiboak aurkitzen ditu artistak, historiaurreko iraganera ez ezik, planetaren gehiegizko berotzea eta basamortutzea nagusi izango dituen eta hipotetikoa izatetik gero eta urrunago dagoen etorkizun batera proiektatzen gaituztenak.

Orain dela gutxi sortu duen *Laurden sakratua* (*Holy Quarter*, 2020) obrak ibilbide oniriko batera eramaten gaitu enklabe zabal-zabal baten bitartez: Rub al-Khali izeneko basamortua, Saudi Arabia, Oman, Arabiar Emirerri Batuak eta Yemen artean kokatua. Filmean, aireko irudien sakontasuna haren soinu-bandarenarekin baino ezin konpara daiteke; azken hori artistaren ahizpa eta ohiko kolaboratzaile den Fatima Al Qadirik konposatua da.

Soinua ardatz hartuta, *Laurden sakratua* piezak Harry St. John Philby esploratzaile britainiarraren istorioa hartzen du abiapuntutzat. 1930eko hamarkadan Arabiako basamortua zeharkatu zuen Philbyk, galdutako Ubar hiri mitikoaren bila; Koranaren arabera, jainkoaren haserrearekin suntsitu zuen "Hareetako Atlantida" hura antzina-antzinako garaietan. Basamortuko hiriaren ordeztu, esploratzaileak gure planetan ikus daitezkeen meteorito-talkarik garrantzitsuenetako baten aztarnak aurkitu zituen. Philbyk hasiera batean sumenditzat hartu zuen Wabar kraterraren inguruan talka haren mineral-puskak daude oraindik ere. Perla beltzen itxura duten harri haiek espiritu kosmiko eta kolektiboaren mezulari dira Monira Al Qadirirentzat.

Ahots lodi eta geldo batez, Wabarren espirituak irudiei laguntzen die bere diskurtsoarekin, eta eskultura-multzo ikusgarri gisa gorpuzten da erakusketaren espazioan. Beira puztuzko pieza iridiscente horiek — ikaragarri lodiak baina hauskorrak era berean— perla beltzak zein petrolio gordin tanta itzelak ekartzen dituzte gogora.

Al Qadirik honela azaldu du: “Denbora luzea daramat perlen eta petrolioaren estetikan lanean, eta Golkoko eskualdean petrolioaren aurretik eta ondoren bizitako aldiak erlazionatzea da nire asmoa. Zeren eta, petrolioaren aurretik, perla-urpekaritza baitzen bertako industria nagusia. Eskultura hauek orainarekin eta etorkizunarekin bateratzen dute iragana; petrolioaz eta haren erauzketaz, ekonomiaz eta haren garapenaz mintzo dira. Petrolioak modu bortitz eta erradikalean aldatu du eskualde honen kontakizun historikoa”.

Filmean, harriek lehen pertsona kontatzen dute —Wabar gara— gure planetara iritsi zireneko istorioa, eta zirrara iluna erakusten dute gertatzeko zorian dauden hondamendien aurrean; baina egoera hori aldarazteko elkarrekin lan egitera ere adoretzen gaituzte. Denbora eta espazioa zeharkatzen dituen amets-irudi batean, Monira Al Qadirik aurrez aurre ipintzen ditu ikuslea eta uste jakin batzuk, Mendebaldeak modernotasunaren eta kolonialismoaren inguruan dituen ideietatik harantz doazenak. Horrela, diziplina arteko obra bat sortu du, arazo globalei modu kritikoan heltzen diena hizkuntza poetikoaren, irudiaren eta sorkuntza musikalaren bitartez.

Monira Al Qadiri. Biografia

Monira Al Qadiri (1983, Dakar, Senegal) Berlinen bizi da eta bertan egiten du lan. Jaso duen nazioarteko hezkuntzak ez ezik, Ekialde Ertaineko identitateak zalantzan jarriz etengabe egiten duen ariketak ere markatu du bere ibilbidea. Senegalen jaioa, artearen arloan Japonian hezia —bertan lortu zuen bere doktoretza— eta Alemaniara lekualdatu aurreko urteetan Libanon bizitakoa, Persiar Golkoko artisten belaunaldi baten adierazle gailenetako bat da Al Qadiri, eta GCC izeneko artista-kolektibo ospetsuaren sortzailetako bat ere bada. Bere obra bakarkako erakusketa ugaritan erakutsi izan dute, esaterako erakunde hauetan: UCCA Dune (2022); Art Gallery of Burlington, Ontario (2021); Haus der Kunst, Munich (2020); Kunstverein Göttingen, Göttingen (2019); Circl Pavilion, Amsterdam (2018); Sursock Museum, Beirut (2017); Gasworks, Londres (2017); Stroom Den Haag, Haga (2017); Sultan Gallery, Kuwait (2014); Tokyo Wonder Site (2009). Gainera, nazioartean oihartzun handia duten arte-ekitaldietan parte hartu du, besteak beste: Biennale di Venezia (2022); Seoul Mediacity Biennial (2021); Guangzhou Image Triennial (2021); Asia Pacific Triennial, Brisbane (2018); eta Athens Biennial (2018).

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gune bat da, eta Guggenheim Museoen bildumetako obrak aurkezten ditu, baita nazioarteko beste erakunde batzuetakoak ere. 2014an ireki zenetik, Film & Video aretoak hainbat artista bereziren sorkuntza-lanak erakutsi ditu, besteak beste, hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, William Kentridge, Alex Reynolds eta Sharon Lockhart.

Hezkuntza-jarduerak:

***Dark Genesis*. Monira Al Qadiriren performancea eta artistarekin solasaldia. (Martxoak 10)**

Museoko 103. Film & Video aretoan izango den *Laurden sakratua* (2020) erakusketaren inaugurazioarekin batera, Monira Al Qadirik *Dark Genesis* performancea aurkeztuko du martxoaren 10ean, 18:30etan, Guggenheim Bilbao Museoko Entzungelan.

Performancearen ondoren, Guggenheim Bilbao Museoko Film&Video aretoaren arte-arduradun Manuel Cirauquirekin batera arituko da performance horri eta *Laurden sakratua* obrari buruz hizketan. Ondoren, solasaldi bat izango da publikoarekin.

Azaleko irudia

Monira Al Qadiri. Laurden sakratua

Laurden sakratua (*Holy Quarter*, 2020).

Instalazioa, 20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak (fotograma).

Municheko Haus der Kunst museoaren enkarguz egina.

Artistaren eskaintza

©Monira Al Qadiri

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa
Marketin eta Komunikazio Arloa
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:

Monira Al Qadiri. Laurden sakratua

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Monira Al Qadiri. Laurden sakratua (fotograma)

Laurden sakratua (Holy Quarter, 2020)

Instalazioa, 20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak
(fotograma)

Municheko Haus der Kunst museoaren enkarguz egina

Artistaren eskaintza

© Monira Al Qadiri



Monira Al Qadiri. Laurden sakratua (fotograma)

Laurden sakratua (Holy Quarter, 2020)

Instalazioa, 20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak
(fotograma)

Municheko Haus der Kunst museoaren enkarguz egina

Artistaren eskaintza

© Monira Al Qadiri



Monira Al Qadiri. Laurden sakratua (fotograma)

Laurden sakratua (Holy Quarter, 2020)

Instalazioa, 20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak
(fotograma)

Municheko Haus der Kunst museoaren enkarguz egina.

Artistaren eskaintza

© Monira Al Qadiri



Monira Al Qadiri. *Laurden sakratua* (fotograma)

Laurden sakratua (*Holy Quarter*, 2020)

Instalazioa, 20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak
(fotograma)

Municheko Haus der Kunst museoaren enkarguz egina.

Artistaren eskaintza

© Monira Al Qadiri



Monira Al Qadiri. *Laurden sakratua* (fotograma)

Laurden sakratua (*Holy Quarter*, 2020)

Instalazioa, 20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak
(fotograma)

Municheko Haus der Kunst museoaren enkarguz egina.

Artistaren eskaintza

© Monira Al Qadiri



Monira Al Qadiri. *Laurden sakratua* (instalazioaren ikuspegia)

Laurden sakratua (*Holy Quarter*, 2020)

Instalazioaren ikuspegia, Guggenheim Bilbao Museoa

20 minutuko bideoa eta beirazko eskulturak

Artistaren eskaintza

© Monira Al Qadiri

Argazkia: @FMGB, Guggenheim Bilbao Museoa, 2022

